

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Donostiako Udala**

**Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián**

**2018**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>9</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>11</b>
II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	12
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....</b>	<b>13</b>
III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	13
III.1.1 SARRERAK.....	13
III.1.2 LANGILERIA.....	13
III.1.3 KONTRATAZIOA.....	14
III.1.4 DIRULAGUNTZAK.....	15
III.1.5 BESTE ALDERDI BATZUK.....	16
III.2 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	16
III.2.1 KONTRATAZIOA.....	16
III.2.2 BESTE ALDERDI BATZUK.....	17
<b>IV. FINANTZA ANALISIA.....</b>	<b>18</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>21</b>
V.1 UDALA.....	21
V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	24
V.3 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	26
<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>29</b>
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria.....	29
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak.....	30
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak.....	31
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak.....	32
A.5 Ondare sarrerak.....	32
A.6 Inbertsio errealeen besterentzea.....	33
A.7 Langile gastuak.....	34
A.8 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa.....	37
A.9 Emandako transferentzia eta dirulaguntzak.....	39
A.10 Ibilgetua.....	40
A.11 Pasibo finantzarioak.....	42



A.12	Aurrekontuko zordunak .....	43
A.13	Aurrekontuz kanpoko eragiketak .....	44
A.14	2019ko ekitaldira txertatutako kredituen geldikinak .....	44
A.15	Konpromiso kredituak .....	45
A.16	Kontratazioa .....	46
A.17	Enpresa erakunde publikoak eta sozietate publikoak .....	49
A.17.1	Langileria .....	49
A.17.2	Kontratazioa .....	50
A.17.3	Zorpetzea .....	52
<b>ALEGAZIOAK .....</b>		<b>53</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>		<b>61</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>		<b>63</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>		<b>65</b>
II.1	OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	65
II.2	OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	65
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>		<b>67</b>
III.1	AYUNTAMIENTO Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....	67
III.1.1	INGRESOS .....	67
III.1.2	PERSONAL .....	67
III.1.3	CONTRATACIÓN .....	68
III.1.4	SUBVENCIONES .....	69
III.1.5	OTROS ASPECTOS .....	69
III.2	ENTIDADES PÚBLICAS EMPRESARIALES Y SOCIEDADES PÚBLICAS .....	70
III.2.1	CONTRATACIÓN .....	70
III.2.2	OTROS ASPECTOS .....	71
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>		<b>72</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>		<b>75</b>
V.1	AYUNTAMIENTO .....	75
V.2	ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....	78
V.3	ENTIDADES PÚBLICAS EMPRESARIALES Y SOCIEDADES PÚBLICAS .....	80



<b>ANEXOS .....</b>	<b>83</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable .....	83
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	84
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	85
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	86
A.5 Ingresos patrimoniales .....	86
A.6 Enajenación de inversiones reales .....	87
A.7 Gastos de personal .....	88
A.8 Compra de bienes corrientes y servicios .....	91
A.9 Transferencias y subvenciones concedidas .....	93
A.10 Inmovilizado .....	94
A.11 Pasivos financieros .....	96
A.12 Deudores presupuestarios .....	97
A.13 Operaciones extrapresupuestarias .....	98
A.14 Remanentes de créditos incorporados al 2019 .....	98
A.15 Créditos de compromiso .....	99
A.16 Contratación .....	100
A.17 Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas .....	103
A.17.1 Personal .....	103
A.17.2 Contratación .....	104
A.17.3 Endeudamiento .....	106
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>107</b>

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a  
Vitoria-Gasteiz, 29 de octubre de 2020





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

15/2010 Legea	15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, abenduaren 29ko 30/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
86/2015 FD	86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
BEZ	Balio erantsiaren gaineko zerga
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitza
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EIN	Estatistikako Institutu Nazionala
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza
FAGDG	Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
KEAO	Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Administrazio Organoa.
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
LZ	Lanpostuen Zerrenda
PEKI	Proiektu eta Eraikuntzaren Kudeaketa Integratua
PFEZ	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
PGPN	Publikotasunik gabeko Prozedura Negoziatua
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko Legearen Testu Bategina.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa







## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Donostiako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Donostiako Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio-lana 2015eko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen –zeinetan udala kapital sozialaren % 50etik gorako ehunekoaren jabe baita- balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitza-kontua eta memoria besarkatzen ditu, baita Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuaren likidazioa ere.

Enpresa erakunde publikoen eta sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iriztitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Donostiako udalerriak 186.665 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera eta bere antolamenduan, Udalez gain honako erakunde autonomoak, enpresa erakunde publikoak eta sozietate publikoak barne hartzen ditu:

- DonostiaTIK erakunde autonomoa: udal antolamendu osoari telekomunikazio eta informatika zerbitzuak ematea.
- Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoa: kirol instalazioak eraikitzea eta kirol-jarduerak, kirol federatua eta lehiaketako kirola eta kirol ikuskizunak kudeatu eta sustatzea.
- Musika eta Dantzaren Udal Eskola erakunde autonomoa: musika eta dantzako irakaskuntza ez arautua.
- Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoa (Etxegintzako EEP): udal etxebizitzaren kudeaketa eta Udalak agindutako hirigintzako eragiketen egikaritzea.



- Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa (Kulturako EEP): Kultura eta jaietan udalaren eskumenak zuzenean eta modu deszentralizatuan kudeatzea. Erakundeak ondoko sozietate hauen % 100eko jabetza du:
  - San Telmo Museoa, SA: kultura-ondarearekin lotutako programa eta jardueren kudeaketa.
  - Victoria Eugenia Antzokia, SA: arte eszeniko, musika, dantza eta ikusi-entzumenezkoekin loturiko programa eta kultura jardueren kudeaketa.
- Eguskiza Higiezin Sozietatea, SA (% 100): Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eraikuntza eta horrekin lotutako eragiketak. Sozietate honek ez du jarduerarik.
- Donostiako Tranbia Konpainia, SA (% 100): bidaiarien garraioa ustiatzea.
- Donostiako Hileta Zerbitzuak, SA (% 100): errausketa eta hilerriko zerbitzuak kudeatu eta ustiatzea.
- Donostiako Sustapena, SA (% 100): jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea, ekoizpen eta enplegu sistemaren garapena sustatzen lagunduko dutenak.
- Donostia Turismoa, SA (% 100): jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea, turismoaren garapena sustatzen lagunduko dutenak.
- Anoeta Kiroldegia, SA (% 100): Anoetako kirol-inguruko lanak eta zerbitzuak sustatu eta kudeatzea.
- Bainuetxearen Sozietatea, SL (% 99,99): "La Perla del Océano" bainuetxearen eraikina ustiatzea eta beste bainuetxe batzuk eraiki eta ustiatzea.

Gainera, ondoko mankomunitate eta partzuergoen atal da: San Markoko Mankomunitatea (hiri hondakin solidoen kudeaketa), Añarbeko Uren Mankomunitatea (uraren ziklo osoaren kudeaketa), Miramar Jauregia Partzuergoa (kultura jarduerak), Haurreskolak Partzuergoa (haur eskolen kudeaketa) eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoa (garraio zerbitzua).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak iritzi zion 2018an 18 langileri ordaindutako erretiro aurreratuko sariak -625.675 eurorenak- PFEZtik salbuetsitako laneko etekinak zirela. Alabaina, ez dira betetzen Langileen Estatutuaren Legeko Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak (ikus A.7).
2. 2018ko ekitaldian, kontratua 2016ko otsailaren 19an amaitu zitzaion enpresa esleipendunak Txofre plazako lurpeko aparkalekuaren zerbitzu publikoaren emakida gauzatzen jarraitu zuen; kontratazioa arautu zuten pleguetan, baina, ez zen luzapenik aurreikusi. 2018ko ekitaldian ustiaketa-kanon kontzeptupean aitortutako diru-sarrerek 480.361 euro egin zuten. (Ikus A.5).
3. Udalak 2018ko ekitaldian 555.729 euroren gastua egikaritu zuen hornidura bat eta 2 zerbitzu emanaldi zuzenean hornitzaile bakarrarekin kasu bakoitzean kontratatzeagatik, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus A.16).
4. Udalak 2018ko ekitaldian onartu zuen haurtxoko eta gazteleku sarea kudeatzeko zerbitzua ematen jarraitzea kontratua iraungi ondoren, abendura arte 370.455 euroren gastua egikarituz. Kontratu berriaren tramitazioa aurreko kontratua iraungi eta 4 hilabetetara abiarazi zen (ikus A.16).
5. 2018an Kirolaren Udal Patronatuak 2017an kontratua iraungi zitzaion hirugarrenarekin 81.946 euroren gastua egikaritu zuen gune berdeen mantentze-lanetarako. Kontratu berria 2018ko abenduan hasi zen izapidetzen (ikus A.16).
6. Kulturako EEP San Telmo Museoa SAK eta Victoria Eugenia Antzokia SAK 2 zerbitzu egikaritu zituzten kontratuak iraungiak zituzten hirugarren berberekin, guztira 441.795 euroren zenbatekoan (ikus A.17.2).
7. 2017an Anoeta Kiroldegia SA sozietateak baimena eman zuen Real Sociedad de Fútbol SADk joko-zelaiko sorta zuzenean egikaritzeko, 683.491 euroren lizitazio-zenbatekoarekin; ordea, jabari publikoko emakidaren titular den Anoeta Kiroldegia SAK kontratatu behar zukeen prozedura ireki bitartez, higiezin osoan instalazio finkoa zen aldetik (ikus A.17.2).

Epaitegi honen iritzira, Donostiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, letik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Donostiako Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2018ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	OND.GARB.
A.6 Atotxa Errekako lursailen besterentzea .....	(13.718)	-	-	-
A.8 Ondasun arrun. eta zerb. kontratazioa, 2018an fakturatuak ....	(4.043)	-	4.043	(4.043)
A.7 Gizarte Segurantza: 2018ko abenduko enpresa-kuota.....	(1.433)	-	1.433	(1.433)
A.11 Formalizatu gabeko mailegua .....	(14.410)	(14.410)	(14.410)	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>(33.604)</b>	<b>(14.410)</b>	<b>(8.934)</b>	<b>(5.476)</b>

2. Udalaren Egoera Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren zenbatekoak 2018ko abenduaren 31n ez dute data horretan inbentarioan jasotako ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen (ikus A.10). Gainera, erakunde autonomoetan ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren zifrak 2018ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik.
3. Udalaren Egoera Balantzeko Finantza Ibilgetuak 2018ko abenduaren 31n 3,2 milioi euro barne hartzen ditu Eguskiza Higiezinaren Sozietatea, SAK izan duen erosketa kostu kontzeptuan. Ez dago sozietatearen aktiboa osatzen duten lursailen baloraziorik eta honenbestez, ez dakigu beharrezkoa ote litzatekeen aipatutako zenbatekoaren gainean baloraziozko zuzenketa negatiborik egitea.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Donostiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

##### III.1.1 SARRERAK

- 2018ko ekitaldian indarrean zegoen zergak eta zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk biltzeko udal ordenantzak lehentasunezko interes-tipoa finkatzen du zorren gerorapen eta zatikapen batzuetarako (% 2,75), berandutzako interes-tipo orokorra (% 3,75) baino txikiagoa, eta nahasgarria da onuradun motari eta emakida-kopuruen mugei eta itzultzeko gehienezko epeei dagokienez; hori dela eta, gomendagarria da ordenantza hori aldatzea.
- Udalak 2011ko abenduan esleitu zuen 2044ko apirilera arte Arcco Amara eraikinaren emakida bidezko kudeaketa, merkataritzako erabilera eta jardueretarako, eta emakidadunak 1,5 milioi euroren hasierako kanon bat ordaindu behar izan zuen eta urteko 120.000 euroren kanon bat. 2018ko abenduaren 31n kobratzeko zegoen zorra 1,4 milioi euro zen, geroratzeko ebazpenik ez dagoela (ikus A.5).
- Udalak 2016ko abenduan esleitu zuen Ilunben 2 lursail besterentzeko kontratua eta aparkalekutarako jabari publikoko lursail baten erabilera pribatuko emakida, guztira 17,1 milioi euroren zenbatekoan. 2017ko otsailaren 28an Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen eskritura geroratzea harik eta beharrezkoak ziren hirigintzako eta ingurumeneko lizentziak eskuratu arte, gehienez urtebetean. Udalbatzak 2018ko uztailaren 19an Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartu zuen; ez zaio, baina, esleipendunari galdatu salerosketa eskritura publikoan jaso eta prezioa ordaintzeko.

##### III.1.2 LANGILERIA

- Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekitaldirako Administrazioako langileen soldata igoeren gaietan hartutako erabakiak ez dira GAOn argitara eman (ikus A.7).
- Udalak eta mendeko erakunde guztiek langileei ordaindu die 2018ko ekitaldian produktibitate-osagarri ez finkagarri bat, osagarri finko bat eta beste osagarri aldagarri bat dituen, lanaldiaren egiazko denboraren arabera (ikus A.7 eta A.17.1). Ordainsari kontzeptu hau funtzionario bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.



### III.1.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

Udalaren eta erakunde autonomoen kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu:

- Kirolaren Udal Patronatuak 1,2 milioi euroan esleitutako kontratu baten pleguak erakunde autonomoaren Lehendakariordetzak onartu eta ondoren, errektoretza-kontseiluak baliokidetu ditu (25 zk. espedienteak).
- Udalak 4,1 milioi euroan esleitutako zerbitzuko kontratu batean, pleguek eskatzen dute formula matematikoa aplikatuta balioztatuko den informazioa aurkezteko balio-judizio baten baitako diren irizpideak soilik jaso behar dituen gutun-azalean (15 zk. espedienteak).
- Udalak 1,9 milioi euroan esleitutako trafikoko kontrol-instalazioak zaindu eta konpontzeko zerbitzuen kontratuan, pleguek jasotzen duten subrogatzeko obligazioa ez dago ezargarrira den hitzarmenean jaso (12 zk. espedienteak). Betekizun hau enpresa eta langile arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.
- Udalak 37,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 kontratutan, pleguek eskaintzei 2 hilabetez eutsiko zaiela agintzen duten arren, esleipena egin da epe hori 1,5 eta 6 hilabetetan gaindituta (2, 3, 4, 7, 8, 10 eta 12 espedienteak). Gainera, 7. espedientearen kontratuaren esleipena baldintzapetu behar zitzaiokeen alde aurretik dagokion ingurumeneko baimena eskuratzeari.
- Zerbitzu-kontratu batean, Udalak 585.870 euroan esleitutakoan, esleipendunari eskatutako behin betiko bermea ez dator bat kontratuaren guztizko prezioarekin, baizik eta urteko bakar baten zenbatekoarekin (14 zk. espedienteak).
- Udalak guztira 35,4 milioi euroan esleitutako 6 kontratutan, zeinetan guztira 1,9 milioi euroren 8 aldaketa onartu baitira, honako ez-betetze hauek azaleratu ditugu:
  - Aldeen artean kontratuaren 6 aldaketa formalizatu behar ziratekeen 1,8 milioi euroren zenbatekoan, eta behin betiko bermeak doitzeko eskatu (1, 3, 4, 7 eta 13 espedienteak).
  - Guztira 576.746 euro egin duten 3 kontratuetako 4 aldaketetan, kontratazio organoak lanak egin ostean onartu ditu aldaketa horiek (7, 13 eta 18 espedienteak).
  - Kontratatzailearen profilean kontratuen 2 aldaketa argitaratu behar ziratekeen, 651.985 euro egin zutenak; izan ere, kontratu horiek esleitu ziren Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean sartu ondoren (4 eta 7 zk. espedienteak).
- Udalak 1,6 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean, 1,3 milioi euroan esleitutako 1. sorta aurreikusitako epearen aldean 6 hilabeteko atzerapenez hartu da; ez du, baina, kontratazio atalak epe luzaketarik onartu (1 zk. espedienteak).
- Udalak 1,9 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean, esleipendunak kontura egindako 497.707 euroren ordainketak jaso ditu material pilaketagatik, kontratazio atalaren baimenik izan gabe (4 zk. espedienteak).



Gainera, Udalaren eta bere erakunde autonomoen ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratuen eta inbertsioen 2018ko ekitaldiko gastuaren egikaritzea berrikustean honako alderdi hauek azaleratu dira:

- Udalak zerbitzu kontratu bat izenpetu du aurrekoa iraungi aurretik kontratu berriaren esleipena epean egiteko behar hainbateko denborarik gabe. Hori dela eta, abuztua eta abendua bitartean, aurreko esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu du luzapen behartu baten bidez; gastua 187.386 euro izan da.

### III.1.4 DIRULAGUNTZAK

- 2018ko ekitaldian Udalak ez du Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera dirulaguntzak emateko deialdiari buruzko informaziorik bidali, plataforma horrek publikotasuna emateko sistema modura funtziona dezan.
- Udalak 2018ko ekitaldian San Markoko Mankomunitateari 9,9 milioi euroren ekarpenak ordaindu dizkio hiri-hondakin solidoak eta bio-hondakinak kudeatzeko zerbitzua finantzatzeko, tratatzeko edo desegiteko emandako tona kopuruaren arabera, nahiz mankomunitateko Estatutuek agintzen duten banaketa-irizpide bakarra biztanle kopurua dela.

### III.1.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Diruzainak mamitutako hiruhileko txostenetan, Donostiako Udalaren merkataritzako eragiketetan ordainketa epeak betetzeari buruzkoan (15/2010 Legean aurreikusitakoak), azaleratu da badagoela 21,3 milioi euroren kopuru bat (2018ko ekitaldian egindako ordainketa guztien gainean % 24,8) legez finkatutako epea gainditzen duena: Erakunde autonomoetan Kirolaren Udal Patronatua gailentzen da, izan ere legezko epe hori gainditzen duten 1,7 milioi euroren ordainketak baititu (2018ko ekitaldian egindako ordainketa guztien gainean % 20,7).
- Erakunde autonomoek eta Udalaren mendeko beste erakunde batzuek, Donostiako Tranbia Konpainia SAK salbu, ez daukate euren webgunean gardentasun atari bat edo Udalaren atarirako esteka bat, zeinetan argitaratuko baitira auditatutako urteko kontuak, kontratazioari buruzko informazioa: kontratuen hiruhileko zerrenda –kontratu txikiak barne-, prozedura bakoitzarekin esleitutako kontratuen ehunekoari buruzko estatistikako datuak, eta hitzarmenak eta emandako laguntza publikoak, abenduaren 9ko Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean zehaztutakoari jarraikiz.
- Udalak 2011ko abenduan 2044ko apirilera arte emakida bitartez esleitu zuen merkataritzako erabilera eta jardueretarako Arcco Amara eraikinaren kudeaketa, zeinetan emakidadunak 1,5 milioi euroren hasierako kanon bat ordaindu behar baitzuen eta urteko 120.000 euroren kanon bat. 2018ko abenduaren 31n kobratzeko zegoen zorra 1,4 milioi eurorena zen, gerorapen ebazpenik gauzatu ez dela edo kontratua eteteko izapidea abiarazi ez dela.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udalak 2016ko abenduan esleitu zuen Ilunben 2 lursail besterentzeko kontratua eta jabetza publikoko lursail baten erabilera pribatuko emakida, aparkalekutarako, guztira 17,1 milioi euroren prezioan. Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko otsailaren 28an onartu zuen eskritura gehienera urtebeteko aldirako geroratzea, harik eta beharrezkoak ziren hirigintzako eta ingurumeneko lizentziak eskuratu arte. Udalbatzak 2018ko uztailaren 19an arlo honetako Hiri Antolamendurako Plan Berezia onartu zuen; ez zaio, baina, esleipendunari eskatu salerosketa eskritura publikoan jasotzeko eta prezioa ordaintzeko.

## III.2 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK

### III.2.1 KONTRATAZIOA

Erakunde hauetan kontratazioa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.17.2):

- Donostiako Tranbia Konpainia SAK 9,9 milioi euroan esleitutako kontratu batean, pleguetan barne hartutako prezio irizpidearen formulak, nahiz objektiboa eta publikoa den, murriztu egiten du hasiera batean aurreikusitako haztapena, izan ere gutxieneko puntuazio bat esleitzen zaie lizitazio aurrekontua berdintzen duten eskaintzei (2. espedienteak).
- Anoeta Kiroldesia SAK 12,5 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean ez dira pleguetan adierazten lizitatuzaileek egiaztatu behar dituzten kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak (6. espedienteak).
- Anoeta Kiroldesia SAK 39,1 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan, lanean diharduten langileei ezargarria zaien hitzarmen kolektiboa, obren esleipendunek lizitazio prozesuan jakinarazitakoa, ez zen esleipen-erabakian barne hartu, ez eta kontratatzailearen profileen argitara eman ere, pleguek agintzen zuten moduan (5 eta 6 zk. espedienteak).
- Futbol estadioa zaharberritzeko Proiektu eta Eraikuntzaren Kudeaketa Integratuaren (PEKI) zerbitzu-kontratuan, Anoeta Kiroldesia, SAK 1,4 milioi euroan esleitutakoan, 176.960 euroren aldaketa bat onartu zen hasierako kontratuan jaso gabeko zerbitzu osagarrien kontzeptuan (proiektu aldatu bat idaztea); ez da, ordea, egiaztatu kontratista aldaketa ez zela bideragarria arrazoi teknikoengatik eta kostuak nabarmen garestitzea zekarrela (4. espedienteak).
- Donostiako Sustapena SAK esleitutako ekoizpen energetikoko zentro bat sortu eta kudeatzeko kontratuan, 2,9 milioi euroan kontrataturiko obra zibila 278.949 euroan garestitu da eta kontratazio-atalak aurretiko jardueren kontzeptuko gastua baliokidetu du, aldaketa horren gainean % 69 egiten duena.





Gainera, 2018ko ekitaldiko beste gastu batzuen egikaritza aztertzean, honako hauek ikusi ditugu:

- Kultura Enpresa Erakunde Publikoak 349.977 euroren gastua egin du zuzenean 53 hirugarrenekin, liburutegi sarerako bibliografia eta ikus-entzunezko materiala erosteko; kopuru horren % 77,1 5 hirugarrenek hartzen dute. Hornigaien homogeneotasuna aintzat hartuta, gomendagarria litzateke publikotasuna eta lehia bermatuko duen prozedura izapidetzea.

### III.2.2 BESTE ALDERDI BATZUK

- Enpresa erakunde publikoek eta sozietate publikoek urtero euren kontuen kanpoko auditoria kontratatzen dute, finantza alderdiei dagokienez soilik. Honen ondorioz, kontu hauen gainean ez dira gainerako kontrol moldeak gauzatzen, artekaritzaren kontrola osatuz (legezkotasuna, efikaziaren eta efizientziaren ekonomikoa eta antolamenduzkoa) 21/2003 FAn erabakitakoari jarraikiz gauzatu behar direnak.
- Etxegintzaren enpresa erakunde publikoak azken 2 ekitaldiak maniobra-funts negatiboarekin itxi ditu 2,5 eta 3,3 milioi euroren zenbatekoan, hurrenen hurren, eta Udalaren aurrerakinak behar izan ditu, 2018ko abenduaren 31n 1,9 milioi euroren saldoa eginez (ikus A.13). Komenigarria litzateke Udalak finantzaketa iturri egokiagoak eratzea, erakunde publikoari oreka jasangarria lortzeko bide emango diotenak.
- 2000ko ekitaldian Udalak Eguskiza SA Higiezin Sozietatea SA erosi zuen 3,2 milioi euroren zenbatekoan. Erosi zuenez geroztik, sozietateak ez du inongo jarduerarik izan. Horren aurrean, komenigarria litzateke likidatu eta desegitea.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2016(*)	2017(*)	2018	2016	2017	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	137.589	137.461	143.536	739	738	769
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	133.173	137.634	147.189	716	738	788
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	5.066	5.016	4.980	27	27	27
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>275.828</b>	<b>280.111</b>	<b>295.705</b>	<b>1.482</b>	<b>1.503</b>	<b>1.584</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	74.935	76.352	76.518	403	410	410
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	87.110	87.495	88.869	468	469	476
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	78.467	80.693	84.906	422	433	455
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>240.512</b>	<b>244.540</b>	<b>250.293</b>	<b>1.293</b>	<b>1.312</b>	<b>1.341</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>35.316</b>	<b>35.571</b>	<b>45.412</b>	<b>189</b>	<b>191</b>	<b>243</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	1.102	845	753	6	5	4
<b>Emaitza arrunta.....</b>	<b>34.214</b>	<b>34.726</b>	<b>44.659</b>	<b>183</b>	<b>186</b>	<b>239</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	14.288	13.910	14.495	77	75	77
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>19.926</b>	<b>20.816</b>	<b>30.164</b>	<b>106</b>	<b>111</b>	<b>162</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	30.302	8.642	50.963	163	46	273
Jasotako kapital dirulaguntzak (7. kap.) .....	1.088	583	8.863	6	3	47
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	40.508	19.109	27.547	218	103	148
- Emandako kapital dirulaguntzak (7. kap.) .....	19.166	9.886	11.194	103	53	60
<b>Kapitalezko eragiketen emaitza .....</b>	<b>(28.284)</b>	<b>(19.770)</b>	<b>21.085</b>	<b>(152)</b>	<b>(107)</b>	<b>112</b>
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.) ....	5.930	14.956	65.744	31	79	351
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina .....	47.609	61.062	96.943	256	328	519
Zorpetzea.....	107.636	107.628	107.543	578	577	576
<b>Erabilitako zorpetzea.....</b>	<b>90.015</b>	<b>79.439</b>	<b>79.232</b>	<b>484</b>	<b>426</b>	<b>424</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2018ko ekitaldian kitatutako sarrera arruntak % 7,2 hazi dira 2016ko ekitaldiaren aldean eta % 5,6, berriz, 2017koaren aldean.

- **Zergak:** Igoerarik handiena -1,8 milioi eurorena- HILBIZak izan du, kitatzeko zeuden aurreko ekitaldiko egitate zergagarriak barne hartzen zituzten likidazioek gora egin izanaren ondorioz; izan ere atzerapenak izan ziren 2017ko otsailaren 16ko Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondorioz, zeinak baliogabe izendatu baitzituen araudi ezargarriko hainbat artikulua, balio igoerarik gabeko egoerak zergapetzen zituelako.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Hiri hondakin solidoak bildu eta desegiteko tasa kontzeptuan aitortutako sarrerak 1,2 milioi euro egin dute gora, etxebizitzaren tarifetan eta hondakinen ekoizle handietan igorerak izan direlako eta tarifa aldaketa egon delako jarduera turistikoetara emandako etxebizitzetan.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Igoera Udal Finantzaketarako Foru Funtsean metatzen da, 9,7 milioi euroren igoera izan baitu.

**Funtzionamendu-gastuak:** Obligazio aitortuak % 4,1 igo dira 2016ko ekitaldiaren aldean eta % 2,4, 2017koaren aldean. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- **Langile-gastuak:** Aurrekontuko kapitulu hau % 0,2 igo da, baina gogoan hartuz gero abenduko Gizarte Segurantzaren gastuaren erregistro egokia, igoera % 2,1ekoa izango litzateke, 2018ko ekitaldirako onartutako soldata-igoeren ondorioz.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** % 1,6ko igoera izan du, 2018ko batez besteko inflazioaren pareko.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Azpimarratzekoa da Kirolaren Udal Patronatuko transferentzien igoera, 1,6 milioi euroren zenbatekoan.

**Aurrezki gordina eta garbia:** 2018ko ekitaldian diru-sarrera arrunten igoera funtzionamendu gastuena baino handiagoa izan da eta horrek aurrezki gordina eta garbia 2017ko ekitaldiaren aldean 10 milioi euro inguru gehitzea ekarri du. Ekitaldi honetako aurrezki garbia sarrera arrunten % 10,2 da.

**Kapital-eragiketen emaitza:** 2018ko ekitaldiko kapital-eragiketen emaitzaren saldoa 21,1 milioi eurora igo da. Alabaina, gogoan izan behar da 26,3 milioi euroren diru-sarrerak etorkizuneko inbertsioei atxikiak daudela.

**Zorpetzea:** Udalaren zorpetze mailak ez du 3 ekitaldietan aldaketarik izan, ekitaldi bakoitzean amortizazioengatiko obligazioen kopuru berean mailegu berriak kontratatzea baimendu baita. Hala eta guztiz ere, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako baimendutako maileguak, 28,3 milioi euroren zenbatekodunak, erabiltzeke daude 2018ko abenduaren 31n. Gainerako erakundeei dagokienez, Etxegintzako EEPk 2018ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 65 milioi euroren zorra erakutsi dute.

**Diruzaintza-geldikina:** 2018ko ekitaldia 96,9 milioi euroren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinarekin (GODG) kitatu da. Ordea, HKEE honek proposatutako doikuntzak aintzat hartuz gero, magnitude honek 63,3 milioi euroren saldoa izango luke, 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazioan izandako 32,7 milioi euroren Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin doituaren aldean, hobetua.



**Ondorioa:** Udalak ez du zorpetze baimendurik baliatu behar izan azken bi ekitaldietan. Gainera, 2018ko ekitaldian gora egin du GODGk, izan ere sortutako aurrezki garbia ez da beharrezkoa izan ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko. 2019ko ekitaldian GODG bidez finantzatutako 92,3 milioi euroren kredituak gehitu dira, magnitude horren % 95,2 egiten dutenak (ikus A.14).

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen Udalaren mendeko administrazio publikoaren sektorea osatzen duten erakundeek 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga bete dutela egiaztatuz. Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du finantza-orekako egoeran daudela. Hona hemen erakundeen zerrendaren xehapena eta horien sailkapena:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA	SOZIEKATE EZ FINANTZARIOAK
Donostiako Udala	Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoa
DonostiaTIK erakunde autonomoa	Bainuetxearen Sozietatea SL
Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoa	Donostia Tranbia Konpainia SA
Musika eta Dantzaren Udal Eskola erakunde autonomoa	Donostiako Hileta Zerbitzuak SA
Donostia Kultura enpresa erakunde publikoa	Kursaal Zentroa SA (*)
San Telmo Museoa SA	Zorroaga Fundazioa (*)
Victoria Eugenia Antzokia SA	
Anoeta Kiroldgia SA	
Donostiako Sustapena SA	
Donostia Turismoa SA	
Donostiako Musika Hamabostaldia SA (*)	
Kultura Garaikidearen Zentroa SA (*)	
Cristina Enea Fundazioa (*)	
Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioa (*) (**)	
Miramar Jauregiaren Kontsortzioa (*)	

(\*) Donostiako Udalaren Kontu Orokorrean sartu gabeko erakundeak

(\*\*) 2018ko abenduaren 31n likidazio fasean



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

2018-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOB.R.	GABEA	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOB.R.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	74.675	-	74.675	77.666	70.774	6.892	104		
2. Zeharkako zergak .....	A.3	5.500	-	5.500	5.513	3.598	1.915	100		
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	58.091	82	58.173	60.357	49.775	10.582	104		
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	140.937	964	141.901	147.189	138.000	9.189	104		
5. Ondare-sarrerak.....	A.5	4.647	-	4.647	4.980	1.997	2.983	107		
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	A.6	41.774	33.718	75.492	50.963	19.576	31.387	68		
7. Kapitaleko transferentziak.....	A.4	3.428	7.002	10.430	8.863	679	8.184	85		
8. Aktibo finantzarioak .....		-	61.054	61.054	4	4	-	(*)-		
9. Pasibo finantzarioak.....	A.11	14.410	-	14.410	14.410	-	14.410	100		
<b>GUZTIRA</b>		<b>343.462</b>	<b>102.820</b>	<b>446.282</b>	<b>369.945</b>	<b>284.403</b>	<b>85.542</b>	<b>(*)96</b>		

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.	GABE	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.ORDAINK.					
1. Langileria-gastuak.....	A.7	78.176	453	78.629	76.518	76.429	89	97		
2. Ondasun arruntan eta zerbitz. kontratazioa ..	A.8	96.322	6.255	102.577	88.869	87.630	1.239	87		
3. Gastu finantzarioak.....		1.555	(787)	768	753	753	-	98		
4. Transferentzia arruntak .....	A.9	86.100	9.196	95.296	84.906	82.904	2.002	89		
5. Kreditu glob. eta bestel. ustekabekoak .....		1.261	(814)	447	-	-	-	-		
6. Inbertsio errealak .....	A.10	51.423	73.481	124.904	27.547	26.077	1.470	22		
7. Kapitaleko transferentziak.....	A.9	14.215	14.550	28.765	11.194	11.185	9	39		
8. Aktibo finantzarioak .....		-	401	401	401	401	-	100		
9. Pasibo finantzarioak.....	A.11	14.410	85	14.495	14.495	14.495	-	100		
<b>GUZTIRA</b>		<b>343.462</b>	<b>102.820</b>	<b>446.282</b>	<b>304.683</b>	<b>299.874</b>	<b>4.809</b>	<b>68</b>		
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>						<b>65.262</b>				

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOBR./	AZKEN
		ZORRA		ORDAIN.	ZORRA
Zordunak.....	A.12	83.046	(2.694)	40.666	39.686
Hartzekodunak .....		20.129	(16)	18.479	1.634
<b>GUZTIRA</b>			<b>(2.678)</b>		



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....	369.945
Obligazio aitortuak .....	(304.683)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan .....	(2.694)
Obligazioen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	16
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>62.584</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	29.231
Finantzaketako desbideratzeak .....	(26.326)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>65.489</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza .....	37.007
Aurrekontuko zordunak.....	125.228
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13).....	4.074
Aplikatzeko dauden ordainketak.....	70
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(6.443)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13).....	(16.012)
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA 18.12.31-N</b>	<b>143.924</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoa (ikus A.12) .....	(20.652)
Atxikitako finantzaketaren soberakina (ikus A.14).....	(26.329)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA 18.12.31-N</b>	<b>96.943</b>

ZORPETZEA (ikus A.11)	Euroak milakotan
Erabilitako zorra 18.12.31n.....	79.232
Erabili gabeko zorra 18.12.31n .....	28.311
<b>GUZTIRA</b>	<b>107.543</b>

2019RA GEHITUTAKO KREDITUAK (ikus A.14)	Euroak milakotan			
	AURREK.	A	D	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	<b>27.810</b>	<b>32.618</b>	<b>58.193</b>	<b>118.621</b>

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA (ikus A.15)	Euroak milakotan			
	2019	2020	GUZTIRA	
6. Inbertsio errealak .....	32.859	11.655	44.514	
7. Kapitaleko transferentziak .....	3.511	982	4.493	
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.370</b>	<b>12.637</b>	<b>49.007</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	31.12.18	31.12.17	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	31.12.18	31.12.17
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>493.508</b>	<b>504.607</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>496.462</b>	<b>445.055</b>
Ibilgetu ez-materiala .....A.10		13.387	24.025	Ondarea .....		138.718	138.718
Ibilgetu materiala .....A.10		164.078	169.935	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		304.289	248.316
Lurraren ondare publikoa.....A.10		226.968	221.539	Ekitaldiaren emaitza.....		43.701	55.912
Finantza inbertsioak e/luz.....A.10		89.075	89.108	Jasotako dirulag., aplikatzeke.....		9.754	2.109
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>105.826</b>	<b>106.206</b>
				Zorrak e/luz.....A.11		93.051	93.217
				Aldizkakotzeag. doiketak. epe/luz. ....		12.775	12.989
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>145.729</b>	<b>99.223</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>36.949</b>	<b>52.569</b>
Zordunak eta kobratz knt e/lab. ...		75.398	76.189	Zorrak epe lab.....A.11		12.201	14.410
Finantza inbertsioak e/lab.....		33.324	1.698	Taldeko enpresekin zorrak e/lab.....A.11		2.291	2.290
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....		37.007	21.336	E/lab. beste zor batzuk.....		11.304	7.087
				Hartzek. eta e/lab. ordaint. knt.....		11.153	28.782
<b>AKTIBOA</b>		<b>639.237</b>	<b>603.830</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		<b>639.237</b>	<b>603.830</b>

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2018 ETA 2017

Euroak milakotan

	2018	2017
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	165.085	134.792
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	148.366	137.745
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	934	936
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	9.682	9.924
Langileria-gastuak.....	(76.895)	(76.683)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(96.084)	(90.578)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(88.373)	(87.030)
Ibilgetua amortizatzea.....	(17.843)	(13.164)
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>44.872</b>	<b>15.942</b>
Ibilgetua besterentzeagatiko emaitzak .....	(2.113)	-
Beste kontu-sail ez arunt batzuk .....	569	609
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>43.328</b>	<b>16.551</b>
Sarrera finantzarioak.....	1.931	38.174
Gastu finantzarioak.....	(753)	(845)
Finantza aktibo eta pasiboen balio-narriadura .....	(805)	2.032
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK</b>	<b>373</b>	<b>39.361</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>43.701</b>	<b>55.912</b>

**V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK**

## 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
2. Tasak eta bestelako sarrerak .....		-	7.894	1.110
4. Transferentzia arruntak .....		6.273	6.492	3.230
5. Ondare-sarrerak.....		-	104	-
7. Kapitaleko transferentziak.....		918	1.313	103
<b>ESKUBIDE KITATUAK GUZTIRA</b>		<b>7.191</b>	<b>15.803</b>	<b>4.443</b>
1. Langileria-gastuak.....	A.7	3.790	4.337	3.911
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioa.....		2.290	7.284	496
3. Gastu finantzarioak.....		-	21	-
4. Transferentzia arruntak.....	A.9	-	720	-
6. Inbertsio errealak .....		954	1.307	83
<b>AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK GUZTIRA</b>		<b>7.034</b>	<b>13.669</b>	<b>4.490</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>		<b>157</b>	<b>2.134</b>	<b>(47)</b>

## AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Ekitaldiaren emaitza.....	157	2.134	(47)
Ekitaldi itxien emaitza .....	-	1	(6)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>157</b>	<b>2.135</b>	<b>(53)</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	137	-	48
Finantzaketako desbideratzeak .....	-	-	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>294</b>	<b>2.135</b>	<b>(5)</b>

## DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Diruzaintza .....	257	1.609	85
Aurrekontuko zordunak.....	394	1.244	784
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	31	46	17
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(62)	(477)	(108)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(290)	(1.038)	(757)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	-	(14)	-
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKINA</b>	<b>330</b>	<b>1.370</b>	<b>21</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuet. diruzaintza geldikina .....	-	-	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA</b>	<b>330</b>	<b>1.370</b>	<b>21</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>4.466</b>	<b>12.524</b>	<b>265</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	207	25	-
Ibilgetu materiala .....	4.259	5.248	249
Lurraren ondare publikoa .....	-	7.251	16
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>682</b>	<b>2.885</b>	<b>886</b>
Zordunak eta kobratz bestel. knt e/lab .....	425	1.276	801
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	257	1.609	85
<b>AKTIBOA</b>	<b>5.148</b>	<b>15.409</b>	<b>1.151</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>4.796</b>	<b>13.893</b>	<b>287</b>
Ondarea .....	1.148	974	215
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	2.907	9.272	17
Ekitaldiaren emaitza.....	(813)	1.608	(121)
Jasotako dirulag., aplikatzeke.....	1.554	2.039	176
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>352</b>	<b>1.516</b>	<b>864</b>
Taldeko erakundeekiko zorrak, epe lab. ....	-	-	566
Zorrak epe lab.....	68	142	14
Hartzek. eta e/lab. ordaint. knt.....	284	1.374	284
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>5.148</b>	<b>15.409</b>	<b>1.151</b>

2018KO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	DONOSTIATIK	KIROL P.	MUSIKA ETA DANTZA
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	-	7.524	1.103
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	6.277	6.492	3.223
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	-	472	5
Langileria-gastuak .....	(3.835)	(4.341)	(3.914)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	-	(720)	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(2.245)	(7.278)	(492)
Ibilgetua amortizatzea.....	(1.010)	(520)	(48)
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>(813)</b>	<b>1.629</b>	<b>(123)</b>
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(813)</b>	<b>1.629</b>	<b>(121)</b>
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>(21)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(813)</b>	<b>1.608</b>	<b>(121)</b>



### V.3 ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

EGOERAREN BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ETXEGINTZA EEP	KULTURA EEP	SAN TELMO MUSEOA SA	VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>146.475</b>	<b>19.478</b>	<b>23.519</b>	<b>21.272</b>
lbilgetu ez-materiala .....	71	35	394	5
lbilgetu materiala .....	1.594	19.281	23.124	21.267
lbilgetuko inbertsioak.....	144.809	-	-	-
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak .....	-	157	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	1	5	1	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>10.910</b>	<b>5.902</b>	<b>2.847</b>	<b>1.652</b>
Izakinak .....	111	-	-	-
Merkataritz. zordunak eta kobratz. kontuak .....	9.700	1.776	2.722	1.489
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	-	2.943	-	75
Epe motzeko finantza inbertsioak .....	79	2	-	-
Aldizkatzeak epe laburrera.....	98	200	5	2
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	922	981	120	86
<b>AKTIBOA</b>	<b>157.385</b>	<b>25.380</b>	<b>26.366</b>	<b>22.924</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>52.729</b>	<b>22.057</b>	<b>23.587</b>	<b>21.305</b>
<b>Funts propioak .....</b>	<b>(4.761)</b>	<b>1.449</b>	<b>68</b>	<b>90</b>
Kapitalezkoak .....	-	1.091	67	90
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(5.593)	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk .....	469	14.008	3.790	4.911
Ekitaldiaren emaitza.....	363	(13.650)	(3.789)	(4.911)
<b>Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..</b>	<b>57.490</b>	<b>20.608</b>	<b>23.519</b>	<b>21.215</b>
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>90.463</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Zorrek kreditu erakundeekin epe luzera .....	60.308	-	-	-
Bestel. finantza pasiboak epe luzera.....	14.519	-	-	-
Gerorat. zergarengatiko pasiboak .....	7.382	-	-	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	8.254	-	-	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>14.193</b>	<b>3.323</b>	<b>2.779</b>	<b>1.619</b>
Zorrek, kreditu erakundeekin epe lab. ....	4.718	-	-	-
Taldeko enpresekiko epe laburreko zorrak .....	1.850	740	1.596	-
Epe laburreko hornidurak.....	-	61	151	-
Bestel. finantza pasiboak epe laburrera .....	28	195	14	15
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk .	7.448	1.951	1.017	1.513
Aldizkatzeak epe laburrera.....	149	376	1	91
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>157.385</b>	<b>25.380</b>	<b>26.366</b>	<b>22.924</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	(*) Eguskiza	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitz.	Donostia Sustapena	Donostia Turismo	Anoeta Kiroldegia	La Perla Bainuetxea
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>518</b>	<b>20.959</b>	<b>2.338</b>	<b>25.271</b>	<b>121</b>	<b>50.450</b>	<b>2.611</b>
lbilgetu ez-materiala .....	-	393	229	122	41	-	-
lbilgetu materiala .....	518	20.566	2.107	4.183	57	37.836	-
lbilgetuko inbertsioak.....	-	-	-	20.961	-	12.564	2.611
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	-	2	5	23	50	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>-</b>	<b>8.436</b>	<b>1.885</b>	<b>7.423</b>	<b>747</b>	<b>7.673</b>	<b>996</b>
Izakinak .....	-	474	2	-	185	-	-
Merkatar. zordun. eta kobratzeko knt.....	-	5.433	162	5.820	110	2.963	141
Epe motzeko finantza inbertsioak .....	-	-	347	-	36	-	-
Aldizkatzeak epe laburrera.....	-	177	-	-	1	-	-
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	-	2.352	1.374	1.603	415	4.710	855
<b>AKTIBOA</b>	<b>518</b>	<b>29.395</b>	<b>4.223</b>	<b>32.694</b>	<b>868</b>	<b>58.123</b>	<b>3.607</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>393</b>	<b>17.165</b>	<b>3.313</b>	<b>19.483</b>	<b>173</b>	<b>15.514</b>	<b>3.085</b>
<b>Funts propioak .....</b>	<b>393</b>	<b>14.582</b>	<b>3.241</b>	<b>13.023</b>	<b>91</b>	<b>6.697</b>	<b>2.724</b>
Kapital Soziala .....	433	13.474	1.292	9.605	84	5.036	1.807
Jaulkipen prima.....	-	301	-	11	-	-	-
Erreserbak.....	-	752	1.672	3.406	-	4.065	736
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(40)	-	-	1	-	(1.327)	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	15.866	-	5.665	2.693	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	-	(15.811)	277	(5.665)	(2.686)	(1.077)	181
<b>Dirulagun., dohaintzak eta legatuak .</b>	<b>-</b>	<b>2.583</b>	<b>72</b>	<b>6.460</b>	<b>82</b>	<b>8.817</b>	<b>361</b>
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>-</b>	<b>108</b>	<b>657</b>	<b>1.019</b>	<b>2</b>	<b>33.383</b>	<b>368</b>
Bestel. finantza pasiboak epe luzera.....	-	108	27	517	2	-	-
Taldeko enpresen epe luzeko zorrak .....	-	-	-	-	-	-	241
Gerorat. zergarengatiko pasiboak .....	-	-	-	-	-	-	127
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	630	502	-	33.383	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>125</b>	<b>12.122</b>	<b>253</b>	<b>12.192</b>	<b>693</b>	<b>9.226</b>	<b>154</b>
Taldeko enpresen epe laburreko zorrak...	-	-	-	-	-	-	12
Bestel. finantza pasiboak epe laburrera ...	-	4.504	-	386	(2)	-	-
Epe laburreko hornidurak.....	-	-	-	-	10	-	-
Merkatar. hartz. eta ordaintz kontuak ....	125	6.780	200	10.289	685	9.104	142
Aldizkatzeak epe laburrera.....	-	838	53	1.517	-	122	-
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>518</b>	<b>29.395</b>	<b>4.223</b>	<b>32.694</b>	<b>868</b>	<b>58.123</b>	<b>3.607</b>

(\*) Jarduerarik gabeko sozietate publikoa



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2018KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	ETXEGINTZA EEP	KULTURA EEP	SAN TELMO MUSEOA SA	VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA
Negozio zifraren zenbat. garbia .....	7.482	6.600	383	3.021
Enpresak aktiborako egindako lanak .....	218	-	-	-
Hornikuntzak .....	(330)	-	-	-
Ustiapeneko bestelako sarrerak .....	26	315	824	790
Langileria-gastuak .....	(1.628)	(12.305)	-	(70)
Bestelako ustiapen gastuak .....	(3.038)	(8.298)	(4.996)	(8.652)
Ibilgetua amortizatzea .....	(2.865)	(750)	(1.106)	(854)
Diru-laguntzak egozteak .....	943	742	1.106	852
Ibilgetua besterenganatzeag. narriad. eta emaitza .....	151	-	-	-
Beste emaitza batzuk .....	(23)	46	-	2
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>936</b>	<b>(13.650)</b>	<b>(3.789)</b>	<b>(4.911)</b>
Sarrera finantzarioak .....	399	-	-	-
Gastu finantzarioak .....	(972)	-	-	-
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(573)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>363</b>	<b>(13.650)</b>	<b>(3.789)</b>	<b>(4.911)</b>

2018KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	Donostiako Tranbia konp.	Hileta zerbitz.	Donostia Sustapena	Donostia Turismo	Anoeta Kiroldedia	La Perla Bainuetxea
Negozio zifraren zenbat. garbia .....	20.455	1.485	4.946	639	-	-
Hornikuntzak .....	(4.021)	(357)	(2.400)	(72)	-	(102)
Ustiapeneko bestelako sarrerak .....	1.192	15	3.554	262	594	589
Langileria-gastuak .....	(28.543)	(586)	(2.867)	(1.822)	-	-
Bestelako ustiapen gastuak .....	(3.801)	(189)	(8.384)	(1.679)	(427)	(154)
Ibilgetua amortizatzea .....	(2.507)	(107)	(808)	(51)	(1.313)	(117)
Diru-laguntzak egozteak .....	662	8	295	36	1.506	29
Ibilg. bester. narriad. eta emaitza .....	46	-	-	-	(1.438)	-
Beste emaitza batzuk .....	706	3	-	1	1	-
